

ESTAZIO ZAHAR BATEAN ZURE ZAIN

Arkaitz Estiballes

Galdakao. 17 urte

Baga

Egon nintzen behiala
estazio zahar batean zure zain
zain amodioaren trena noiz etorriko
etorriko zinenean agurtzeko
agurtzeko eta musu emateko
emateko zerbait baineukan
neukan bihotzerdia hain zuzen ere
hain zuzen ere zain nengoen.

Biga

Zain nengoen baina bazirudien
harri koskorren batek
burugogor eta setatia nonbait
ez ziela erlojuko hondar aleei
aduanarik zabaltzen
beheko herrialdera jaisteko
izan ere denborak aunitz alditan
ez behin
ez birritan
hausten
zuen grabitatearen legea
hagitz argi nekusan hori apika
baina bazirudien zain nengoela.

Higa

Trenaren hotsa nentzuenean ohartzen nintzen
aduaa guztietan izaten zirela
etorkin ilegalentzat bidezidorrak
baita denboraren aduanan ere.

Laga

Trena geldituaz batera zure bila ninduzulako
bederatzi musetatik ederrena zeu zinen Erato
baina inondik
ezin zu eriden
bagoirik bagoi jendeari zutaz galdezka
argitu nahirik nire kezka
nenbilan
denek erraten zuten ostera
aurreneko geltokian
agian
jaitsi zinela ostera
ere
ni halafede
eroria etsipenen pertzan
estazio zaharreko aulki hartan nentzan
ametsak puztuz
salto eginez Morfeoren magalera
besoen artean izango zintudala sinestuz
hurrengo trena geldituaz batera.

Boga

Hurrengo trena ordea ez zen nehoiz
ez berandu ez goiz
heltzen geltokira
zu barnean zindekartzalarik.

Sega

Ordutik hona erlojuko harri koskorra
setati eta gogorra
higatu da
alta
adua desagertzera
erlojuko hegoaldeko herrialdea
etorkinez bete da
baina ez dago xenofobia arriskurik
izan ere nork desberdindu ditzake
bi hondar ale?
Gaztetan gutxietsitako grabitatearen legeak
berriz ere zuzena dela frogatu du
erlojuko hondar aleen
teoriaren bidez
nik ere orain arrazoia damaiot gainera
begiratzuz buruko ile urdinduen aldera.

Zain

Dena den gaur ere egon nago
estazio zahar honetan
eskuartean papel txuri bat
eta axota mantenduz

nahiz eta badakidan
herdoilak margozturiko errailetatik
ez dela trenik etorriko
hala ere aulkian natzalarik
begiak itxiz
tren bat datorrela imaginatzen dut
non zeu zatozen Polymnia
poesiaren musa
nire poesien mamia
eta begiak zabaltzerakoan
eskuartean neukan paper txurian
haizeak agian
izkiriaturiko poema bat dager
xume bezain eder.

Zoi

Ilargiak eguzkiari ortzean bataila irabaztean
zure zain izateaz akiturik
Morfeoren sehaska kantuez asperturik
emagaldu baten altzoan bilatzen dut babes
eguzkiak ilargiari ortzean bataila irabazi arte.

Bele

Ni beti egongo naiz
geltoki honetan
egun eguzkitsu zein
egun hitsetan
belarria ipiniz
errail herdoiletan

trena datorkeelako
edozein unetan
pozik zein penetan
baietz egon bertan
beti ametsetan
haizeaz hizketan
agertuko zarela
egun batetan

Harma Tiro Pum!

Ez dut musarik ezagutuko
eguneroko museko partidaz besterik
zaharregia izango naiz
Morfeo eta emagalduen
altzoetan lokartzeko
baina Bakok eskuzabalik hartuko nau
bere magalean
baliteke errail herdoildurik ez egoterik ere
eta estazio zaharraren lekuan
Mc Donalds bat egotea
hala ere ni
haizeak behinola izkiriaturiko poemak
patrikan harturik
betiko tokian eseriko naiz,
begiak itxirik
aspalditik espero dudan trena
jin arte
edo bestela

erlojuko azken hondar alea
amildu arte
zin dagizut maitea.